

Goierri tarra

368. zenbakia
2009ko urriak 9

Bertsolari Txapelketa Nagusian

HIRU GOIERRITAR LEHIAN

ALTAMIR/
JATETXEA



Altamiran
sukaldaritza
maite dugu

Altamirako kirolgunea / Ordizia
T 685 794 755 / altamira@geri.net



reklone

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:
I. Fdez Ornaburu Dra.
 (Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRA SHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04



GoierriHartxo

Goierriko haurren aldizkaria

20. zenbakia zure esku




Zatoz gurekin ospatzera!

GOIERRIKO **hitza** 30 urte
Goi 20 urte

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa:

Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama,

Itsasondo eta

Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Rufino Iraola Garmendia.

5. Ingurugiro txokoa: Fauna exotiko inbaditzaileak.

6. Euskara txukuntzen: Denetik XXVI

8. Elkarrizketa: Aitor Sarriegi, Joxe Munduate eta Iker Zubeldia BECera begira

14. Urteurrena: Goierritarraren 20. urteurrena eta Hitzaren 5. urteurrena.

18. Garai batean...: Josetxo Zufiaurrek azaroaren 3an aurkeztuko du 'Beasaingo Urak' liburua.

22. Goierritar berriak: Goierri Kolore, kulturen arteko III. topaketa.

25. Non zer.

30. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Rufino Iraola Garmendia

***Txapelketak
asko eman dio
bertsolaritzari;
bertsolari asko
plazaratu du,
eta jende asko
bertsotara
hurbilarazi,
baita
bertsolaritza
bere obiko
alorretik
kanpora
ezagutarazi ere.***

Maite duzun damaren aurrean bezala

Historiako XV. bertsolari txapelketaren atarian gaude, edo ezkaratzean. Bi dira gerra aurrekoak, lau diktadura-garaikoak eta bederatzi diktadurapeko etenaren ostean jokatuak: 1935ean, Basarri izan zen txapeldun; 1936an, Txirrita. 1960an, berriz ere, Basarri. 1962, 65 eta 67an, Uztapidek lortu zuen garaipena. 1979an eta 83an, Amuriza atera zen garaille. 1986an, S. Lizaso. 1989an, J. Lopategi. Eta 1993, 97, 2001 eta 05ean, Egaña.

Baina izan dira bertsolari handiak, inoiz txapeldun izan ez direnak. Gogor ditzagun batzuk: J. Agirre, J. Azpillaga, Euzkitze, Lasarte, Lazkano, Lazkao Txiki, J. Lizaso, Mattin, Xalbador...

Horrek esan nahi ote du txapeldun izatearena erlatiboa dela? Edo, oraindik haratago jota, txapelketak ez duela egiten behar adinako justiziarik bertsolarien artean? Bai eta ez. Froga daiteke, adibidez, plazan luzitzen duten guztiek ez dutela luzitzen txapelketan. Era berean, tabernan ondo luzitzen duten guztiek ez dute luzitzen plazan, eta are gutxiago txapelketan. Baina bada axioma bat: txapelketan ondo aritzen denak, jeneralean, edeki luzitzen du plazan eta tabernan ere. Aitzitik, ez dakit nola esan ere inor mindu gabe, bada txapelketan paper ona egin arren, herriko bertso-saioetan oso gutxi ibili denik. Izenik ez dut emango, zeren bertsolaritzaz idaztea niretzat da, gaur egun, txunditua zauzkan neskaren aurrean zer esan ez dakizula geratzea bezala. Orain ere beldurrez ari naiz, bai baitatik askotxorentzat ez naizela esaten ari deus itxurazkorik eta polemikazaleztat jo edo indiferentziaz finikitutako nautela.

Behin hasiz gero, ordea, segi dezadan neure argudioekin, nahiz eta, lehenaz gain, orain ez naizen sartuko barruti ederragoan: beti ez da erabat onartu epaimahaiaren erabakia, edo publikoaren parte batek bederen ez du buru-makur eta besterik gabe ulertu. Adibidez, 1936ko txapelketaren inguruan egon da halako legenda antzeko bat, hau da, Txirrita zaharturik zegoela eta errukiz bezala eman ziotela txapela. Geroztik, aztertu izan da kasu hori, eta Xabier Amurizaren hitzetan, «Orain lasai esan daiket Txirritak mehezimendu osoz jantzi ebala txapela...» (*Enaz banaz*, 139. orrialdea).

Harrezkero ere izan dira gorabeherak: Basarriren erretiratzea, Xalbadorri jotako txistuak. Begira zer dioen Amurizak, egun hartan epaimahaiko zenak, Xalbadorri buruz, gaia (hori bai, *a posteriori*) aztertu ondoren: «...ez daukat ez bai izpirik txapel jenial bat irabazi ebala, segurrenik inoz irabazi den argiena» (*Enaz banaz*, 138. orrialdea). Aitzitik asko izan dira publikoak gogo onez onartu dituenak ere; esate baterako azkeneko laurak.

Gorabehera horiek esan nahi al dute, ordea, txapelketa txarra dela bertsolaritzarentzat? Ezta gutxiago ere. Txapelketak asko eman dio bertsolaritzari; bertsolari asko plazaratu du, eta jende asko bertsotara hurbilarazi, baita bertsolaritza bere ohiko alorretik kanpora ezagutarazi ere.

Imanol Lazkanok (juradu ginela) bota zigun esaldi famatuarekin amaituko dut, eta, bide batez, aurtengo epaimahairi trasladatu: «Zoazte lasai, ez dezue ondo eingo-ta»

**“Eguneroko ogia, ogi bereziak
eta pastel ezin hobeak”**



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elozegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

**Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak**

**Filtroak, olioak,
engrasea**

**Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak**

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Fauna exotiko inbaditzaileak

Espezi exotiko inbaditzaileak: kanpotik etorritako espezie, zeinen sarrerak edo hedapenak arriskuan jartzen duen bioaniztasuna.

Espezie exotiko inbaditzaileak (EEI) bioaniztasunaren aurkako mehatxu nagusietan bigarrena dira, natur habitaten galeren ondoren.

Nola iritsi dira?

✓ Nahita sartu dituzte:

Koipua eta arratoi musketaduna abeltegietan hazitako animaliak ihes egin edo askatu izanaren ondorioak dira. Baita bisoi amerikarra ere. Perka amerikarra, ltxoa eta Siluruaoren kasuan arrantzarako ekarritako arrainak dira. Karramarro seinaleduna eta gorria akui-kulturarako ekarri ziren eta azkar hedatu ziren ondoren.

✓ Maskotak bezala ekarriak:

Floridako apoarmatua edo dortoka adibide gisa. Etxean sartzen ditugu eta aspertzen garenean aske utzi. Egun, animalia exotikoak askatzea debekatuta eta zigorturik dago gainera apoarmatuen esportazioa debekatu egin dute.

✓ Beste bide batzuk:

Inportatutako salgaietan, landare apaingarrietan, garraiontziak, nahigabe ekarriak: asiarrak, liztorra Vespa velutina, zebra



Ostadar amuarraina.

muskulua, geranioko tximeleta. Ibis sakratuaren kasuan zoologikoetatik ihes egin dute.

Ondorioak

EEI bertakoekin lehiatzen dira elikagaiengatik eta habitata eraldatzen dute, oreka hautsiz. Gaixotasunak ere ekar ditzakete eta gure azpiegiturretan kalte larriak sortu (ur hodi, presa eta abarretan esate baterako zebra muskulua).

Legedia

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura zaintzeko 16/1994 legeak eta Ondare Naturalaren eta Bioaniztasunaren 42/2007 legea arazo honi aurre egiteko daudden legeak dira.

Legeak behartu egiten ditu autonomi erkidegoak inbaditzaileak izan daitezkeen espezie exotikoen jarraipena egitera. Honetaz gain, autonomia bakoitzak bere lurraldean EEI katalogoak sortzeko eta espezie horiek kentzeko beharrezko diren debekuak eta ekintza gehigarriak ezartze-

ko aukera ematen du.

Gure lurraldean sartuak, kokatuak eta EAEko espezie autoktonoengan edo habitat naturalean kalteak eragiten dituzten Zerrendak 20 espezie hautatu ditu. Zazpi ornogabe eta hamairu ornodun. Hemeretzi espezie ur ekosistematan bizi dira eta bakarra lehorrean. Zerrenda irekia da eta inbaditzaile izateko aukera handia duten beste zortzi animalia daude. Izan ere, beste eskualdeetan hauen arriskua agerian gelditu da eta laister EAEn inbaditzaile bezala gisa joka dezakete.

Sentsibilizatzea

Gizartea EEEn arazoez sentsibilizatzea ere lehentasuna da. Informazio erraza, erabilgarria eta laguntzeko go-go sortuko duena eta ekin-tzen beharra ulertzen laguntzen duena eskaini beharko dela aipatuz.

Kalteak ekiditeko garrantzitsuak dira prebentzioa, kontrola eta behar denean desagerrarazte ekintzak martxan jartzea, honetarako populazioen jarraipena eta bizi zikloa zehaztea oinarritzak direlarik.

Iturria: "Fauna exotiko inbaditzailea Euskal Autonomi Erkidegoan, diagnosia". Eusko Jaularitza. Ingurumen eta lurralde antolamendu saila.

JAKIN BEHARREKOAK

Argi indarra aurrezteko:

Etxean 4 orduz baino gehiago piztuta dauden bonbilak, kontsumo baxukoengatik aldatu eta ez ibili piztu eta itzaldtu, orduan behar dute energia gehiago eta. Hormak eta sabaia kolore argiekin margotu eguzki argia hobe aprobetxatzeko.

Oria ibaian uholdeen

eragina leuntzeko Zizurkilgo udalak eta Uraren Euskal Agentziak bideratze horma egin dute Ugare inguruan. Honez gain, Aranzadi Zientzia Elkartek egin duen diseinuaren bidez, uhalde enara espezieren kontserbazioan laguntzeko eta aiseago ugaltzeko, drainatze hodiak barnetik egokitu dira habien babesleku izateko.

"Oceanworld-3D" dokumentala

estreinatuko dute. Itsas dordoka gidari lanetan izango dugu eta Ozeanoen altxorak era berri batean azalduko dizkigu.

Landare aloktono edo

exotiko 478 espezie dau-de Euskal Autonomi Erkidegoan. Hauetako %86 izaera inbaditzailea dute. Ekosistemen aldatze antropikoa euren inbasioa errazten duen faktore nagusienetakoa da. Beraz, naturaltasun maila onargarri batean gordetako habitat naturalaren kontserbazioa neurri ona izan liteke espezie inbaditzaile askoren ezarpena eta zabalpena aurreikusteko.

Kalteak ekiditeko garrantzitsuak

dira prebentzioa, kontrola eta

behar denean desagerrarazte

ekintzak martxan jartzea.

Denetik (XXVI)

Maizpide
euskaltegia

Bitartean

Kontuz, aizue, bi ekintzak batera egiten direnean bakarrik erabili ahal izango dugu eta!


- ✓ Zapatak garbitzen dituzun **bitartean**, harrikoa egingo dut, Mariatxo! (egokia)
- ✗ Deslokalizazio madarikatua! Zuzendariari eta gerenteari Polonian bere lekutxoa egin zioten **bitartean**, langileak kale gorrian geratu ziren. (desegokia)
- ✓ Deslokalizazio madarikatua! Zuzendariari eta gerenteari Polonian bere lekutxoa egin zioten, baina langileak kale gorrian geratu ziren. (egokia)

Eta abar luze bat!

Esamolde hau ere nonbaitetik sartu zaigu, bada, dedio! Esan beharrik ere ez dago gaztelaniaz maiz erabiltzen denaren kalko itsusia dela! Honela esan besterik ez dugu:

- ✓ Txirrindulari onak genituen 70eko hamarkadan: Perurena, Lasa, Nazabal, Galdos, Gabika eta abar (eta abar). (egokia)
- ✓ Txirrindulari onak genituen 70eko hamarkadan: Perurena, Lasa, Nazabal, Galdos, Gabika eta beste asko. (egokia)
- ✓ Txirrindulari onak genituen 70eko hamarkadan: Perurena, Lasa, Nazabal, Galdos, Gabika, etab. (egokia)
- ✗ Txirrindulari onak genituen 70eko hamarkadan: Perurena, Lasa, Nazabal, Galdos, Gabika eta abar luze bat. (desegokia)

Joan den larunbatean andregaiak galantak bota zituen Poloniarra joan behar genuela esan nionean! Hainbat urtez kartzelan egotea bezala zela zioen...



Manolo gerentea... hausnarketa sakona egiten!

Begiratu zaituztet?

Bai, lagunok, zuzena da izenburuko "zaituztet" hori! Kontua da Iparraldean baduela beste adiera bat "begiratu" aditzak (euskara batuan aintzat hartzen dena): **zaindu, babestu**. Esanahiaren arabera, beraz, **dizut/zaitut...** erabiliko dugu:

- ✓ Begiratu dizut, Eneko! (so egingo dizut, **nik zuri**)
- ✓ Begiratu zaitut, Eneko! (zainduko zaitut, **nik zu**)

Andregaia bota du Manolok!

Manolo horrek nora bota du, bada, andregaia? Lurrera, akaso? Tira, ez gara adarra jotzen hasiko, ondo baino hobeto ulertzen baitugu zer adierazi nahi zuen Manolo aitatu duenak, baina esan dezagun egokiagoa dela **hizkera-maila ja-soan** "egin" erabiltzea!

- ✓ Andregaia egin du gure Manolok! (egokia)
- ✗ Andregaia bota du gure Manolok! (desegokia)
- ✓ Siestatxoa egingo dut bazkalostean. (egokia)
- ✗ Siestatxoa botako dut bazkalostean. (desegokia)

Ondorengo adibideetan ere "bota" hori baino egokiagorik badugu euskaraz!

- ✓ Bertsozaleak Lazkao Txikiren hutsunea (LazkaoTxikik utzitako hutsunea) nabari zuen. (egokia)
- ✗ Bertsozaleak Lazkao Txiki faltan botatzen zuen. (desegokia)
- ✓ Realak borrelako emaitzak izaten jarraituz gero, Manuel Lasarte ez dute berehala kargutik kenduko. (egokia)
- ✗ Realak borrelako emaitzak izaten jarraituz gero, Manuel Lasarte ez dute berehala kargutik botako. (desegokia)
- ✓ Entrenatzaileak jokalariei leporatu die partida guztiak galdu izanaren errua. (egokia)
- ✗ Entrenatzaileak jokalariei bota die partida guztiak galdu izanaren errua. (desegokia)

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Ikusi zintudanean, goitik behera begiratu zintudan, potxola! Hura gerribuelta, hura!
2. Bota ezak bertsoa, Manolo, andregaiak entzuteko ere!
3. Zuzendaria eta gerentea Polonian zeuden bitartean, langileak gose-greba egiten ari ziren multinazionalaren egoitzaren aurrean!
4. Hesteak bota zituen Joxe Marik Zegamako Iker Zubeldiaren bertso barregarri hura entzutean.

OHARRA: lehenengoan, begiratu **nizun** behar du; bigarrena, hirugarrena eta laugarrena zuzenak dira!

**GURE WEB GUNEARI BIZITASUNA
FALTA OMEN ZITZAION, ETA JON
SARTU DUGU BARRUAN.**

gaztekutxa

Aholkulari pertsonala,
bizi-bizi eta aurrez aurre,
behar duzun guztirako.

Telefono, bideokonferentzia
edo txat bidez.

10etatik 10etara
bezero izan nahiz ez
gaztekutxa.net

zer nahi duzu bihar?


www.kutxa.net

 **kutxa**



Euskal Herriko bertsolari txapelketa abian da
Aitor Sarriegi, Joxe Munduate eta
Iker Zubeldia BECera begira

Urriaren 17an eta 18an izango dituzte lehenengo saioak, Zarautzen eta Uztaritzen



MUJIKA
LIBURUDENDA
 Tel. / faxa: 943 88 11 94
 Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



ondoeta
 GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
 ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
 ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK
 E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com
 ☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72
 201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

Urriaren 3an, Zestoan, hasi zen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa. Goierriko bertsolaritzak, hiru ordezkari izango ditu: Aitor Sarriegi beasaindarra, Joxe Munduate ataundarra eta Iker Zubeldia zegamarra. Txapelketa hasi baino lehen elkartu genituen, txapelketaren atarian, nola sentitzen ote diren, zein helburu dituzten, prestakuntza berezirik egiten ari ote diren jakin nahian. Sarriegik, urriaren 17an, Uztaritzen kantatuko du; Munduatek eta Zubeldia, urriaren 18an, Zarautzen.

Abenduaren 13an Barakaldoko BEC-en Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren finala jokatu da. Finalerako txartela helburu hartuta, final-laurdenak eta finalaurrekoak jokatu beharko dituzte bertsolariek. Finalean, aulkia seguru duena, Andoni Egaña da. Beste zazpi aulkia nork beteko dituzten erabakiko da, azaroaren 29ra bitartean izango diren 14 saiotan. Informazioa guztia, www.txapelketanagusia.eu webgunean duzue.

44 bertsolari, 10 epaile, 10 gaijartzaile arituko dira guztira. Tartean 5 goierritar. Hiru bertsolari, Aitor Sarriegi, Joxe Munduate eta

Iker Zubeldia, eta bi gaijartzaile, Inaxio Usarralde eta Saroi Jauregi.

Aitor Sarriegi beasaindarrak, urriaren 17an, Uztaritzen (Lapurdi) hasiko du txapelketa. Aitor Sarriegi girekin batera arituko direnak, Unai Muñoz, Beñat Gaztelumendi, Arkaitz Estiballes, Xabi Paia eta Erika Lagoma izango dira.

Urriaren 18an, Zarautzen. Iker Zubeldiarekin eta Joxe Munduaterekin batera, Oihane Perea, Xabier Silveira, Iratxe Ibarra eta Unai Agirre izango dira lehian.

Jarraian duzue gure hiru ordezkarien aurkezpena eta iritzia.

Egutegia

Final-laurdenak, 17:30ean

Urriak 10, larunbata, Leitzan, Udal Kiroldegian.

Urriak 11, igandea, Bilbon, Arriaga antzokian.

Urriak 17, larunbata, Uztaritzen, Kiroleta pilotalekuan.

Urriak 18, igandea, Zarautzen, Aritzbatalde pilotalekuan.

Urriak 24, larunbata, Laudion, Lamuza Granja pabilioian.

Finalaurrekoak, 17:30ean

Azaroak 7, larunbata, Bergaran, Udal pilotalekuan.

Azaroak 8, igandea, Gasteizen, Europa pabilioian.

Azaroak 14, larunbata, Tolosan, Usabal kiroldegian.

Azaroak 15, igandea, Hendaian, Beltzenia pilotalekuan.

Azaroak 21, larunbata, Gernikan, Jai-Alai pilotalekuan.

Azaroak 22, igandea, Iruñean, Anaitasuna Pabilioian.

Azaroak 29, igandea, Donostian Belodromoan.

Finala

Abenduak 13, BECen, 11:00etan eta 16:30ean.

Sarrerak

Saioetarako sarrerak aurrez eta internetez erosi ahal izango dira. Sarrerak dagoeneko salgai daude, www.bertsosarrerak.eu webgunean. Bertsozale Elkarte-ko Bazkidetza txartelarekin % 30 merkeago lortu ahal izango dira txartelak.

Sarrerak	Bazkideak	Gazteak	16 urte artekoak
Final-laurdenak	9	6	4
Finalaurrekoak	12	9	4
Finala	26	18	6
Bonoak	60	45	25

Finaleko bazkaria 18 euro.

Finalerako autobusa 12 euro

(Bonoak ez du finalerako balio).



ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia



txekin

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA



xetai
nafarroa etorbidea 1
beasain
www.xetai.net

Aitor Sarriegi

Urriaren 17an, Uztaritzen, izango du lehenengo hitzordua Aitor Sarriegi beasaindarrak Euskal Herriko Bertsolari Txapelketarekin.

Euskal Herriko txapelketa hastear dago. Zer sentitzen da horrelakoetan?

Nik egia esango badizut, oraindik ez nago jarrita. Lehenengo saioa ikusi arte, hara joan eta besteak ikusi arte, ez naiz jartzen. Orduan zurrumbiloan sartuko naiz.

Ni momentuan, nahiko lasai nago. Jende guztia ikusten dut batekin bildu, bestearekin bildu, entrenatzen... Ni oraingoz nahiko lasai. Gero damutu egingo gara orain gutxi zentratu izana. Aurten lasai hartu dut.

Euskal Herriko txapelketa, berezietan bereziena izaten al da?

Bai. Niretzat oso diferenteak dira. Ez dakit, publiko diferentea delako den, komunikabideetan saioen oihartzuna diferentea delako... baina ez dauka inolako zerikusirik. Frontoi bere-

an eta frontoia beteta kantatuta ere, diferentea da. Handiagoa da.

Saio bat baino gehiago kantatzeaz gain, zein duzu helburua?

Aurreko bi txapelketetan bezala, aurten ere, finalaurrekoak bi bueltatara dira, eta bertan parte hartzea dut helburua. Lehenengo bueltan, lau saio dira eta azkeneko seiak bigarren bueltara ez dira pasatzen. Niri gustatuko litzaidake, helburu bat jartzekotan, finalaurrekoetako bigarren bueltan ailegatzea, finalerako aukeraren batekin edo alizienteraren batekin. Baina oso posible da lehenengo bueltara kanpoan gelditzea. Azkenean, erdiak baino gutxiago pasatzen dira. Lehenengoa

pasatzea ere lanak izango dira. Gainera, nahiko saio fuertea tokatu zait. Fijo, lehenengoa bakarrik pasatzen da, besteak, puntuz.

Andoni Egañaren ondo-ko aulkixoren bat hartuko zenuke beraz. Irudikatzen al duzu zure burua BECeko oholtza gainean?

Oraindik oso urruti dago eta uste dut ez dagoela planteatu ere egiterik. Finalaurrekoetan egongo bagina beste kontu bat izango litzateke. Aurreko txapelketan, 2,5 puntugatik gelditu nintzen finaletik kanpo. Zorte pixka bat ere izan zuen, lehenengo bueltako finalaurrekoa oso puntuatua izan zelako. Denetik behar da: ondo aritu behar duzu, zortea ere behar duzu... Lehe-

nengo, lehenengo fasea pasatu behar da.

Entrenamendu berezirik egiten ari al zara?

Badakit batzuk Ataunen biltzen direla baina lehen gara batean biltzen ginen taldea ez gara biltzen. Beste txapelketetarako bildu izan naiz Ordizian eta Apalategirekin ere bai. Gipuzkoako txapelketarako ez nintzen inorekin elkartu. Orain Apalategirekin bildu naiz pare bat aldiz. Nik uste dut prestakuntza baino, jarrera dela inportanteagoa txapelketan. Txapelketaren aurretik txapelketa datorrela badakizu, orduan, gauzak ikusteko, ulertzeko, irakurtzeko... jarrera diferentea daukazu. Albiste bat entzuten duzu eta nahi gabe, pentsatzen hasten zara. Nik uste dut, nahigabe ere, txipa aldatu egiten dela.

Txapelketetako beste saioetara joaten al zara?

Ni, normalean bai. Denetara joaten saiatzen naiz, komenigarria delako, batik bat, zure aurretik izan diren

Nik uste dut prestakuntza baino, jarrera dela inportanteagoa txapelketan.

Logela, egongela eta sukaldoko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

- × Jabekideen komunitatea osatzea
- × Komunitateen kontabilitatea
- × Akten idazketa
- × Aurrekontuen eskaera
- × Aholkularitza legala
- × e.a.

Komunitateen administrazioa

Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea

ORDIZIA

Tel.: 943 087 486

☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

gaiak. Gai tipoa aldatu egiten da. Lehen bakarkako gaiak oso itxiak ziren, gero oso irekiak, orain berriz itxi egingo dituztela... Entzutea zein gai tipo dabilen, doinu luzeak zenbateraino baloratzen dituzten ikustea, zein joera dagoen ikustea... Gustatzen zait pixka bat tanteatzea. Horregatik ez zait gustatzen aurreneko saioan kantatzea.

Finalisten artean nortzuk ikusten dituzu?

Nik uste dut, finala ez dela aldatuko. Askok jota, bat edo bi. Zortzi finalistetatik sei, aurrekoak izango direla uste dut. Zein, ez dakit.

Txapelketa aldatuko al da?

Nik uste baietz. Niri, Iturriagak irabaztea gustatuko litzaidake. Egin egin beharko du, baina plazan oso fuerte dabilen Maialenek aukera asko dauzka irabazteko. Mendiluze, Amets... Mendiluzek saio on bat egiten badu, asko egin behar da hari irabazteko. Ametsek, edozer egin dezake. Nik, Egaña ahaztu gabe, Maialen oso indartsu ikusten dut.

Goierritarren batek izango al du aulkia BEC-eko oholtzan?

Zaila ikusten dut. Bat igual izan liteke, baina zaila. Urte asko dira goierritarrik izan ez dela finalean. 12 urte badira. 1997an, azkeneko aldiz, Mendizabal. Oso zaila ikusten dut. Aukeraren bat egon litekeela uste dut.



Aitor Sarriegi

Beasaindarra da. 32 urte ditu. Informatikako Ingenieritza ikasketak egin zituen eta Urretxu-Zumarraga ikastolan IKT dinamizatzailea da. 1992an Lizardi eta 1993an Osinalde sariak irabazi zituen. 2007an Gipuzkoako txapelketan finalista izan zen eta Txapelketa Nagusian finalaurrekoetara heldu da azken hiru edizioetan. Goierriko bertso-eskolako ki-dea da.

Duela lau urte BEC zer zen ez genekien. Gaur egun, bertsolaritzarekin lotzen dugu.

Boom handi bat izan zen, eta bertsoarekin zerikusirik ez zuen jende asko izango zen final hartan. Baina gustatzen zait gauzak pixka bat erlatibizatzea. BEC bete zen, baina ordutik zenbat aldiz bete da? Gu konturatu ere egin gabe, ez dakit zenbat aldiz bete den. Igual, as-tero. Reala bigarren mailan dabil, gaizki dabil, eta hala ere 14.000 lagun baino gehiago joaten dira bi astean behin. Bere inportantzia

badauka, euskara hutsean den gauza bat delako, eta euskara hutsezko ekitaldi batek hainbeste jende biltzea ez da erraza. Baina niri gustatzen zait, daukan inportantzia ematea, gehiago ez. Gainera kontuan eduki behar dugu, 14.000 lagun izan baziren BECen, lau urteotan zenbatek zenbat bertso saio entzun dituen, propio bertso saio bat entzute-ra joanda. Txapelketan eta BECen bai, baina garai bateko betekadarik ez da ikusten bertsosaiotetan. Kilometroak-era bezala, joan beharra dagoen egun bat

bezala hartu da, hutsegín ezineko plan bat bezala. Injekzio ekonomiko handia dakar, medioetan azaltzen da... jende bat zaletu ere egingo zen.

Nik edukitzen dudana bildur bat da, jende batek, bizkar ematekoa. Donostiatik BECera pasa zenean, eskema guztiak hautsiko zizkion askori. Aurten gainera, Santa Lutzi egunean da finala. Santa Lutzi feriarra joango den hainbat, bestera joan gabe geldituko da. Galera bat egon liteke. Oso jende tipo jakina gainera. Pixka bat ahazten ari garen tipoa.

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



ANDRAITZ
Fisioterapia Zentroa

Naiara Gómez Larrea
Kol.zkia.: 1466

Errehabilitazioa
Masaje terapeutikoa
Kirol masajeak
Lunbalgiak eta ziatargiak
Drenaje linfatikoa
Kinesiologia

Ordutegia:
astelehentik
ostiralera
9:00 - 13:00
15:00 - 20:00

Andraitz kalea, 2 ezk. ZEGAMA Tel.: 943 80 15 32

Joxe Munduate / Iker Zubeldia

Iker Zubeldia zegamarrak eta Joxe Munduate ataundarrak, urriaren 18an, Zarautzen izango dute Txapelketako lehenengo saioa.

Zer sentitzen da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren atarian?

Munduate: Ni neroni behintzat, oraindik, ez naiz konsziente txapelketa gainean denik. Nik uste dut, Zestoan hasiko garela txapelketa bizitzen.

Zubeldia: Bertan ikusi arte, lasai gaude.

Zestoako saiora joan eta txapelketako abestia entzutean barrenak mugitzen hasiko zaizkizue, beraz.

Munduate: Haiek bakarrik ez dira urduri jarriko, gu ere bai.

Zubeldia: Bai, partehartzailer denonak mugituko dira bai.

Zestoan izango zarete, beraz.

Zubeldia: Ni ezin naiz joan baina...ahal dutenak han egongo direla pentsatzen dut. Txapelketa guztiak desberdinak izaten dira eta ikusi egin beharko dugu zer baloratzen duten han.

Zestoan izango zarete bertsolari guztiak.

Munduate: Asmoa badaukat joateko. Ez dakit, gu bezala, atzera samar kantatzea tokatzen zaionari, komeniko zaion aurreko denak entzutea. Baina azkenean ezin zara joan gabe geratu. Ez joanda ere, saioan pentsatzen egoten zara... Onena bertara joatea da.

Zein gai mota jartzen ari ote diren, zer baloratzen duten... zeri begiratzen diozue?

Zubeldia: Aurkariak nola dauden ikusi...

Aurreneko saioan ez tokatzea nahiago orduan.

Zubeldia: Harek daukan ona da lehenbailehen pasa-

Joxe Munduate

Ataundarra da. 36 urte ditu. 10 urte zituela idatzi zituen bere lehen bertsoak. 1989. urtean Lizardi eta Osinalde sarien irabazle izan zen. 2005ekoan huts egin arren, laugarrenez parte hartuko du Txapelketa Nagusian. Ordiziko bertso-eskolan hasi eta Goierriko bertsolariekin biltzen jarraitzen du.



tzen dela. Eta beste saioak entzutera joanda ere, lasaia go zaudela. Beste patxada bat.

Munduate: Hor badago diferentzia, norberak zein helburu dauzkan. Erdi parean tokatuz gero, hobe da, epaimahaikoak ere asentatuta egoten baitira, neurria hartuta. Azkenekoa ere ez da ona, dena erabakitzen baita, eta tentsio handia izaten da.

Biok elkarrekin arituko zarete Zarautzen.

Munduate: Hemen ari gara neurria hartzen elkarri.

Zubeldia: Pare bat aldiz elkartu gara entrenatzeko.

Entrenamentuak egin al dituzue?

Zubeldia: Lan horretarako, mentalizatzea da entrenamendurik garrantzitsuen. Egutero entrenatuta ere, urriaren 18ra bitartean ez dugu aldaketa handirik egingo.

Munduate: Gehienez ere, bakarkako lanerako doinu

pare bat aukeratu, gaiaren arabera bat ala bestea erabiltzeko.

Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketak ezberdin hartzen al dituzue?

Zubeldia: Nik, Euskal Herrikoak gutxi probatu ditut. Hirugarrena izango dut hau. Lehenengoa oso gazterik kantatu nuen. Hurrenagokoa ere antzera, Idiazabalen izan zen, oso presio gutxirekin. Aurtengoa izango da nire burua gehiena estutuko dudana. Ez dakit zer aterako den.

Munduate: Ezberdina da. Gure estiloko bertsolarien tzat, Gipuzkoakoan kantatzea errazagoa da Euskal Herrikoan kantatzea baino. Epaimahaiak ere, herrialde guztietakoak daude. Batuan kantatzeko joera handia dago. Ikerrek eta biok, gehienbat, Goierriko eran kantatzeko joera daukagu, nahiz eta saiatu batuan hitz egiten. Egitura zuzena izan-

gatik, hitzak moztu egiten ditugu eta Euskal Herriko txapelketan dezentet zigorren dela uste dut. Guretzat ez da hain onuragarria, alde horretatik begiratuta. Bestela, ez nuke esango aldaketa handia denik.

Zubeldia: Euskal Herriko-ra, helburu bat beteta zatoz. Gipuzkoakora, gutxienez, Euskal Herriko txartela lortzera joaten zara eta hori lortutakoan, bidea erdia eginda-edo zoaz.

Munduate: Ataka estua da, galbahea oso zorrotza da Euskal Herrikoan. Azken laurdenetatik finalerdietara pasatzea, zaila da. Ni nere lekutik ari naiz hizketan, baina oso egun ona eduki beharko nuke, eta beste batek igual ez hain ona. Faktore asko sartuko lirakeke, aurrera pasatzeko ere. Gipuzkoakoan, saio txukun bat eginez gero, lehenengotik pasatzeko aukerak egoten dira.

Euskal Herriko txapelke-



Iker Zubeldia

Zegamarra da. 28 urte ditu. Galdaragintzan lan egiten du. Etxetik eta La Salleko fraileetatik datorkio bertsozaletasuna. Goierreko bertso-eskolan ibilitakoa ere bada. 2007ko Gipuzkoako txapelketan zortzigarren egin eta gero, bigarrenez arituko da Txapelketa Nagusian.

ta honetan zein duzue helburua?

Zubeldia: Beti esaten den bezala, jendeari zerbait uzten baldin badiozu eta zure buruarekin konforme xamar gelditzeko bidea egiten baduzu... Euskal Herrikoan gaude eta ez dugu helburu izan behar azkeneko finalurrekoetan kantatzea. Hor gaude eta hor egotea ere bada zerbait. Hortik gora nora jarri behar duzu muga?

Munduate: Niretzako behintzat, garrantzitsuenak, saioa hasi eta bukatu, akats handirik egin gabe pasatzea da eta zerbait jendearen gustukoa egitea. Horren bigarren zatia izango litzateke, horrek zein ondorio uzten duen. Norbera bere buruarekin gustura geldituz gero, zerbait aprobeztagarria eginez gero, ni behintzat gustura. Horrek ez du esan nahi, Zarautza denbora pasa joango garenik.

Imajinatzen al duzue zuen burua BEC-eko oholtza gainean?

Zubeldia: Ez.

Munduate: Ez, ez. Nola eta aulkiak jartzeko norbait behar ez duten.

Goierritarrik izango al dugu BECeko finalean?

Zubeldia: BEC-eraino ez dakit, baina Aitorrek paper ona egin dezakeela iruditzen zait. Bere kantatzeko modua eta txapelketa, nahikoa lotuta doazela iruditzen zait.

Munduate: Alde horretatik begiratuta bai, baina nik uste dut formato berdineko zortzi bertsolari ez direla sartuko BECen. Formatotik kanpo ateratzen denetariko bat, Iker da eta ea Ikerrek egun ona edukitzen duen.

Zubeldia: Eguna eta gaua...

Bixigarri pixka bat ondo egongo litzateke, ezta?

Munduate: Hortara nihoan. Saioak beraiek pentsatuta bezala ateratzen baldin bazaie, borrokan hor ibiliko dira. Zazpitan sartzea zaila da, oso zaila da. Lehen dau denetatik, beti sorpresaren bat izaten da. Ailegatzen badira, ni han izango naiz begira.

Zubeldia: Logiko-logikoa ez da gutakoren bat han egotea. Orain, dena ez da logikoa.

Munduate: Beti egoten dira

sorpresak. Nik uste, finalari ere mesede egingo liokeela lkerren estilokoren bat barruan egotea.

Zubeldia: Niri bai, mesede egingo lirake. Inbidia pasatzen duk han eh?

Munduate: Beste era batera hartzen da egun hori, gozatzera joaten gara.

Zubeldia: Kantatu ala ez kantatu, denon eguna izaten da.

Finalean zein bertsolari izango dira?

Munduate: Nik ez dut aldaketa handirik espero, bat ala bi. Baina izenak esatera ez nintzateke ausartuko.

Zubeldia: Beñat Gaztelumendi oso ondo dabil. Beste urteetan kantatu izan duten adinako arriskua ikusten diot.

Munduate: Aldaketa handiak zailak dira. Kantatzeko ahalmena eta gaitasuna ikustea bakarrik ez da. Hara iristeko beste gauza batzuk ere behar dira: egoten jakitea, esperientzia... Ez da hain erraza.

Txapeldun nor izango ote da? Aldatuko al da?

Zubeldia: Aldatu liteke eh? Lasai asko aldatu liteke.

Munduate: Pare bat, hiru, hautagai serio ikusten ditut. **Zubeldia:** Aurtengo udan, pare bat jaialditan, Maiale-nerekin harrituta gelditu naiz. Ikaragarri fuerte ikusi izan dut. Amets ere hor dago. Ametsek ere, iruditzen zait, aukera izan dezakeela. Gehienontzat hala da eta presioa ere edukiko du.

Andoni Egaña ahaztu gabe, ezta?

Zubeldia: Egund osoko saioa izanda gainera. Egund erdi batean bueno, baina egund osoan erritmoa edo linea ondoena mantentzen dakiena Andoni izango da.

Munduate: Andonik, ondo egiten daki eta nahi baldin badu beste izorratzen ere bai.

Zubeldia: Ez da berari zer etorriko zaion, besteari ere zer etor dakioken ere jakiten du.

Orain dela lau urte BEC zer zen ere ez genekien ia. Gaur egund bertsolaritzarekin lotzen dugu. Bertsolaritzan zer suposatu zuen?

Munduate: Lekua, beharbada, inguruan daukagun onena izango da horrelako final bat kantatzeko. Baina, nik ez dakit bertsolaritzan parte ote den. Zalantza asko dauzkat. Ez dakit espazio naturala ote den finala kantatzeko.

Zubeldia: Leku bat egokia, azpiegitura aldetik bada, baina horretaz gain, askoz ere gehiago ez dut uste denik.

Munduate: Hainbeste jende batera biltzeak xarma badauka, baina beste gauza batzuk galduarazten dituela uste dut. Bertsolaritza beste era batera ulertzen dut eta ez zait espazio naturala denik iruditzen. Gero arazoa da, hainbeste jende non sartu behar den.

Zubeldia: Beste hamar leku baleude eta beti han egongo balitz, beste kontu bat izango litzateke, baina han egiten da, beste lekurik ez dagoelako.

G⁺hogeita bost

BIZI GOIERRI!

Goi 20 urte
Goierritarra aldizkaria

GOIERRIKO **hitza** info 5 urte

 **RENAULT**
LAZKAO GARAJEA
Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

Olagi Urte guztian zabalik
Sagardotegia Eguneroko menua
Jatetxea Karta
Sagardotegiko meua
© 943 88 77 26 ALTZAGA



 **mazda** ☎ 943 889 296
Bikar, S. A. Faxa: 943 887 952
N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN



Zorionekoak dira Goierritarra aldizkaria eta Goierriko Hitzza egunkaria. 20 urte beteko ditu Goierritarra aldizkariak, azaroaren hasieran. Goierriko Hitzak, dagoeneko bete ditu 5 urteak. Zorionak, beraz. Baina hori baino garrantzitsuagoa dena, eta horrelakoetan esaten den bezala, urte askotarako!

Urte asko dira Goierriko albisteak euskara hutsean jasotzeko eta irakurtzeko aukera dugula. Xume-xume hasitako bi proiektuak, Goierriren tresna bilakatu dira. Goierri eskualdeari izaera ematen dioten tresnak dira biak ere. Euskaraz bizi nahi dugunon tresna.

Asko dira bidean aurkitu izan ditugun oztopoak, baina gainditzeko gai izan gara, beti ere, zuek, irakurleok, hor egon zaretelako, eta hor zaudetelako. Irakurlerik gabe, ez lukete zentzurik izango ez Goierritarrak, ez Hitzak. Era batera edo bestera, bakoitzak bere aletxoa jarritz, aurrera egin izan dute Goierritarrak eta Hitzak.

Ospatzeko asko daukagulako, zuekin ospatu nahi dugulako, beste hainbeste urte bete nahi ditugulako, hainbat ekintza antolatu dituzte Goierritarrak eta Goierriko Hitzak. Bertan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu.



Itxura berritua

Hemendik aurrera goikoa izango da GOIERRITARRA aldizkariaen irudi berria. Atzera garatzen dira, beraz, aurreko 20 urteetan erabili ditugun beheko irudiak.



Material berria salgai

Goierritarraren eta Hitzaren urteurrenaren aitzakian, material berria salgai dago dagoeneko, Beasaingo bulegoan. Urriaren 31n, Lazkaoko jaialdian salgai egongo da eta azarotik aurrera, ohiko salmenta puntuetan erosteko aukera izango da.

Gizonezko nahiz emakumezkoentzako 'wind stopper' txamarrak, beltzak, harpidedunentzat, 50 eurotan daude salgai. Harpidedun ez direnek gehiexego ordaindu beharko dute, 60 euro.

Kirola egiteko kamiseta, beltza eta grisa, gizonezko nahiz emakumezkoentzako, 18 eurotan daude salgai. Harpidedun ez direnek 23 euro ordaindu beharko dituzte.

Poltsak, handiak, beltzak edo kakiak, 19 eurotan daude salgai, harpidedunentzat. Gainerakoentzat, 24 eurotan.

Erosle guztiei, urteurrenko motxilatxoa oparituko zaie.

BiZi! diskoa

Goierritarraren eta Hitzaren urtemugen aitzakian eskualdeko Goierriko trikitilariak eta bertsolariek egin dako BiZi! diskoa kalean da dagoneko. Goierriko dozena bat trikitilari bikote eta beste hainbeste bertsolari bildu eta Azkarateko Katarain estudioetan egin dituzte grabazio lanak.

Gazteak izan arren Goierriko festa, erromeria eta bestelako kultur ekitaldietan urtetako esperientzia pilatu duten musikariak dira. Hain zuzen ere, erromeria eta festa giro hori islatu nahi du BiZi! diskoak. Trikitilari bikoteekin batera eskualdeko bertsolariek ere parte hartu dute diskoan, batzuk kantuen letrak eginez eta besteek kantuei ahotsa jarrita. Denerariko piezak eta estiloak joko dituzte, Goierriin egiten den trikitiaren erakusgarri. Gaiak ere askotarikoak izango dira, beti ere oinarri moduan euskara eta Goierriko eskualdea hartuta. Goierriko herri guztietan jarriko da diskoa salgai 10 eurotan (harpidedunak ez direnek 12 eurotan).

Trikitilariak eta bertsolariak

X Gari eta Iñaki: 'Goierriko ditxa'. Hitzak: Iker Zubeldia eta Iban Urdangarin.

X Elortza Anaiak: 'Larrosa beltza'. Hitzak: Iban Urdangarin.

X Joseba Iparragirre eta Ander San Jose: 'Itsaso Lehor'.

X Dorronsoro eta Ezkerra: 'Iritsi baino lehen'. Hitzak: Aitor Sarriegi.

X Edurne eta Oihana: 'Hitzak 5 urte'. Hitzak: Urretxu-Zumarragako bertso eskola.

X Xapre eta Furriela: 'Atzotik gau-

rra'. Hitzak: Mikel Mendizabal, Iker Zubeldia eta Altzo Txiki.

X Elustondo anai-arrebak: 'Ontzi hutsak'. Hitzak: Nerea Elustondo.

X Lutxurdio eta Aitziber: 'Epelatxo'.

X Maitane eta Aiora: 'Thesean'. Hitzak: Aitzol Barandiaran.

X Xabi Arakama eta Trikitzio: 'Pelaez'.

X Xapre eta Furriela: 'Goierriko festak'. Eusebio Igartzabal eta Xabier Zeberio.

X Dani eta Peio: 'Goierritar denon hitza'. Hitzak: Iban eta Peio Urdangarin.

X Olarte Anaiak: 'Kalejira'.

X Josune eta Aitziber: 'Aralartik Aizkorri'. Hitzak: Eusebio Igartzabal.

X Xapre eta Furriela: 'Ekuadortik Goierri'.

X Izaro, Alaitz eta Beloki: 'Zaindu gure euskerea'. Hitzak: Iñaki Murua eta Beloki.





ZEGAMA
OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabek
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhua dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.



izal
IMAZ eta CONTRERAS
PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045
Ondramuño
baserria
IDIAZABAL



Arkupe
ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK
J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

urriak
23

Ostirala

Aurkezpena Beasainen

19:00etan

Igartza Jauregiko burdinolan
Goierriko Hitzaren eta
Goierritarra aldizkariaren
urteurrenen aurkezpen festa.
Ondoren luntxa egongo da.



urriak
30

Ostirala

Bertso saioa Legazpin

22:00etan

Latxartegi aretoan

Bertsolariak:

Iñaki Murua
Aitzol Barandiaran
Iker Zubeldia
Aitor Sarriegi

Gai jartzailea:

Joseba Barandiaran

Sarrera 5€

urriak
31

Larunbata

Jaia Lazkaon

16:00-18:00 umeentzako festa:

Puzgarriak, tailerrak...

TAKOLO pailazoaren emanaldia

18:00etan, herri kirol norgehiagoka:

Idiazabal
Zaldibia
Beasain
Zumarraga-Urretxu

19:00etan, Taloak, sagardoa eta trikitixa

21:00etan, **HERRI AFARIA**

Helduentzat menua 20€, haurrentzat menua 5€.
Afarirako txartelak ohiko lekuetan salgai.

23:00etan: **BIZI!** diskan parte hartu duten
bertsolari eta trikitilarien kontzertua

Lazkaoko Udalaren laguntzarekin

BiZi GOiERRi!



Azaroaren 3an aurkeztuko du 'Beasaingo Urak' liburua, Usurbe Antzokian

Jose txo Zufiaurre: “batik bat emakumeentzat izan zen izugarria ura etxeetara ekartzea”

Beasaingo Paperak bildumaren barruan, ‘Beasaingo Urak’ liburua aurkeztuko du Jose txo Zufiaurrek, aza-

roaren 3an, Usurbe Antzokian. Beasaingo etxeetako sukaldeetara, 1909an iritsi zen ura. Duela 100 urte alegia.



ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA · ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIkoa
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAzioA

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



www.txekin.net


Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Etnakia 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

O



Etxeko iturrian ura eza- gutu dugu guk. Baina duela 100 urteko kontua da hori.

Nik etxean ezagutu nuen ura baina ez orain bezala. Hotza bakarrik zen. Dutxarik ez geneukan guk. Sukaldeko fregaderan garbitzen ginen. Komuna bakarrik geneukan. Eta garai batean, arropak garbitzera Oriaerrekara joaten ziren.

1905. urtean gorabehera handi bat izan zen. Mutilon burdin minak zeuden, Zerainen bezala. Lehenengo garbiketak putzuetan egiten zituzten. Baina putzu haie-tatik urak ihes egin edo, Troia erre-kara joan ziren ur haiek. Troia erre-kak Oria ibaia-ri ematen dio, eta Oria ibaia gorri-gorri egon omen zen, mineral urez. Arropak garbitzera emakumeak ezin jaitsi. Agauntza erre-kara joan behar ziren. Joaterakoan, arropa lehorra zegoen, baina bueltakoan, nork ekarri! Tolosakoak ere haserre ibili ziren. Beasaingo Udalak Gobernadoreari abisua bidali zion. Gorabeherak izan ziren.

Ura beti izan da eta da beharrezkoa. Baina ibaietan konpontzen ziren lehenago. **Arropa garbiketa aipatu duzu. Lixiba lekuak al zeuden?**

Ez, bakoitza bere oholarekin joaten zen. Harri baten gainean jartzen zuten ohola. Gero, udalak, lixiba lekua egin zuen, gaur egun, kalegarbitzaileek gauzak edukitzen dituzten lekuan. Igerileku handi bat bezalakoa zen, eta bost edo sei lixiba leku bazeuzkan. Horra joaten ziren garbiketa egitera. Baina ordurako ura ekarrita zegoen. Guk hori ezagutu

Liburua aurkeztearekin batera, azaroaren 3an, herriaren omenaldia ere jasoko du Josetxo Zufiaurrek. Lanean jarraitzeko asmotan da beasaindarra. "Lanean jarraituko dut, beharko, bestela hil egingo naiz. Niretzako bizia da lana. Ni lanean hasi nintzen, Don Joxemielek esandako bi gauza betetzeagatik. Alde batetik, herrik ematen dizun kultura landu eta berriro ere herriari itzultzeko ordena eman zidan. Hala esaten zidan: gizonak ez dauka eskubiderik herriarengandik jaso duen kultura berarentzat bakarrik gordetzeko. Landu eta herriari itzuli behar zaio. Beste alde batetik hau ere esan zidan: zu, egunen batean jubilatuko zara eta pentsioa pagatuko dizute. Gobernuak dirua nondik jasotzen du? Zuri pentsioa herriak pagatuko dizu, eta herriarentzako, pentsio horren truke, lana egin behar duzu. Hori betetzeagatik hasi nintzen, baina orain konturatzen naiz, niretzako lana, bizia dela. Ni lanik gabe aspertu egiten naiz".

Omenaldia



dugu.

Urarekin herria, gizartea aldatuko zen, ezta?

Kontuan eduki dezagun gauza bat bakarrik: komuna, lurrezko ontzi bat izaten zen. Zegamako ollerian erosten zen. Ia metro erdikoa, bi eskulekurekin, egurrezko tapa bat gainean zuela, etxeko bazter batean egoten zen, etxeko denek bere lanak egiteko. Hura betetzen zenean, egunean behin gutxienez, hartu, erre-kara jaitsi, bota, garbitu eta berriz ere etxeko bazter batean jartzen zen. Oso azkar esan dut eh? Kontuan hartu dezagun zein lan zen hori.

Beste aldaketa, lixiba

izan zen. Erre-kara jaitsi behar arropak garbitzera. Erreka ondoan bizi zenak eskilarak bakarrik zeuzkan baina Eliza ondoan bizi zena... arropa bustita, igo ezazu erre-katik Eliza ondora! Batik bat, emakumeentzat izan zen izugarria ura etxeetara ekartzea. Gero labadorea izan zen bezala.

Etxeetara ura eraman aurretik, iturriak eraiki ziren herrian

Ura etxeetara eraman aurretik, ur-bilatzaileek ura aurkitu, eta herrira ura ekartzeko lanak egin ziren. Herriko leku ezberdinetan hainbat iturri eraki ziren, gehienak, auzolanean. Urriaren 31n daukagu ibilbide bat, lehen

iturriak non zeuden, lehen-dabiziko ur ekarrerak nondik egin ziren eta abar ikusteko.

Ospakizun handiak izan omen ziren Beasainen.

Ur-ekarrera ospatzeko, pilota partidua izan zen. Primerakoa eh? Pilota partidua- ren ondoren, ur bedeinkatzea izan zen Plazan. Argazkia hor dago. Aguaziala, mangerarekin ura zeru aldera botatz, ura daukagu esanez. Autoritate guztiak plazan, bikarioa ere bai, bere kapa eta guzti, Sakristaua gurutzearekin. Gero, udaletxeko aretoan, autoritateen, eta proiektua egin zuten ingenieroen bazkaria izan zen, ospatzeko.



kutxa

Beasaingo iturriak

Andre Mari kaleko iturria

“Iturri bat, nahiko garrantzitsua zegoen, Andra Mari kalean. Ijitu etxea izenez ezagutu izan dugu. Juanenea izena zeukan izena. Etxe ospetsua izan da Beasainen. Han bizi izan ziren, Beasaingo sekretarioa (Don Mateo Mujika obispoaren aita), Jose Migel Iturrioz alkatea han jaio zen... Olano etxearen eta Juanenea etxearen tartean une bat zegoen eta hantxe iturri bat zegoen”.

Arana kalekoa

“Beste bat, gaur Usurbe antzokia dagoen tokian zegoen. Momentu batean, Aranatarak, zerrategia jarri zuen. Udalak zerrategia jartzeko baimena eman zionean, garbi esaten zion, arratsaldeko seietan atek ireki beharko zituela, herritarrak sartu zitezten iturritik ura hartzera. Iturria, bere lantegiaren barruan gelditzen zen. Bonbazkoa zen”.

Basarteko iturria

“Basarten ura azaldu zen. Iturria han dago orain ere, urik ez du ematen baino. Basarteko iturria esaten zaio baina Iturriberri du izena. Herriak egin zuen iturria. Eliza ondoan bizi zen jendea hara joaten zen ur bila. Ez zen broma”.

Ugartemendin

Gaur egun, San Martinen irudia dagoen atzealdean, beste iturri bat zegoen Jose-txo Zufiaurreren esanetan.

Ugartemendikoa aipatu digu hurrena beasaindarrak. “1899. urtean, Ugartemendin iturri bat azaldu zen. Institutua dagoen eskubialdean, hantxe dago depositua. Sasi artean, baina hantxe dago. Handik ura ekarrita, plazan jarri zuten iturri bat. Ugartemendiko auzo-koek, behin ura Santa Mari-



natik ekarri zutenean, Ugartemendiko ur hori aprobe-txatzeko. 50 urtean aprobe-txatzeko baimena jarri zuten. Beraien askea egingo zutela, lixiba harri eta guzti, baina handik pasatzen zirenentzat iturria egin behar-ean zeudela. Hantxe dago iturria oraindik”.

Handik urtebetera, beste iturri bat azaldu zen, “Altamira baserritik behera erreka dator, Oria iturrira jaisten da, estazio pare baina beheraxego, Oria ibaiak bat egiten dueneko ia bertan azaldu zen ura eta Zaldizur-retako iturria egin zen. Nik uste nuen Zaldizur-retako iturria Zaldizur-reta baserri-rena zela, baina ez, herriak ekarritakoa da”.

Zazpiturrieta

“CAF, 1860. urtean jarri zen martxan. Renfe ere bai. Ur arazoa zegoen, jende asko etortzen baitzen kanpotik. Beasainek hazkunde ikaragarria izan zuen. Batera eta bestera ibili ziren, eta azkenean Santa Marinar aurkitu zuten, Zazpiturrietako iturria. Iturri bat baino gehiago daude: Potzu Berri, Liña Potzu, Arkasin... denak leku batera eramaten dira. Zazpiturrietatik ekartzen da. Beasainerainoko tuboak 8 kilometro eskas ditu. Legorretako Berostegira jaisten da tu-

boa, berriz ere gora, sifoiak eta daude airea kanpora bidaltzeko. Itsasondo aldean, baserritarren batzuk aprobe-txatu nahia izan zuten, beraien terrenoetatik zangea pasatu behar baitzen. Bat edo beste, besterik ez. Gehienak oso ondo portatu ziren. Zangea ez orain bezala eh? Orain Beasainen, ura eskasa daukagu. Udan, ura beroa dator, eta neguan hotza. Zergatik? Tuboak azalean jarrita daudelako. Orduan ez, paperek garbi esaten dute: metroa eta 20 zentimetrora sartu behar dela tuboak lurrazpian. Hala beti freskoa dator eta ura beti fresko iristen da. Sagastigutik depositua egin zen. Bi depositu ditu, biak komunikatuta”.

Ordurako etxe asko eginda zeuden. Arana kale osoa eginda zegoen. “Bost pisu dauzkate etxeek. Komunak ere eginda zeuden, baina urik gabe. Handik aurrera, ura eduki zuten. Nahi zuenak hartu, kontadorea jartzen zitzaion eta ura hartzen zuen”.

Zazpiturrietako urak ekartzeko, Lazkaoko Markesarekin gorabeheraren bat izan zen. “Ez bromatuko gainera! Lazkaoko Markesak, Legorretan, errota bat zeukan, errentan jarrita. Errota harrek Zazpiturrieta-

tik ateratzen zen errekatxoaren ura hartzen omen zuen. Harek esan zuen, asko maite zuela Beasain herria baina bere errota ezin zuela urik gabe utzi eta hainbeste litro hartzekotan errotari hainbeste utzi behar zitzaiola eta gainera, horren truke, Beasaindik, bere Lazkaoko Jauregira, herriak tuboak jarri eta ura debalde eman beharko ziola. Beasainek jarri egin behar izan zuen. Hala, Lazkaoko jendeak, bidean zeudenak, Beasaini eskatu zien ea tubo hartatik ura hartu zezaketen. Beasainek eman egin zien. Beasaingo iturginak egiten zituen lanak. Kontadorea jartzen zien eta Beasainek ematen zien ura Lazkaoko jende askori. Batzuk erregadiatzen hasi ziren eta moztu egin zitzairen. Gero Lazkaok ura ekarri zuen eta kitto”.

Aiaturrietatik ere ekarri zuten ura Lazkaok, Beasainek eta Ordiziak. Bakoitzak bere depositua egin zuen. Beasainen, Ugartemendin egin zuen. Aiaturrietatik ura ekartzen hasi zirenean ere, antzeko gorabeheraren bat ere izan zuten. “Ataun- go beste errota bat azaldu zen, hango ura erabiltzen zuela... Beasaingo Sekretarioaren deklarazio bat dago Udaletxeko akta batean, Sekretarioak udalgizonei esaten diete, kontuz tratua egin baino lehen, begiratu dezagun harek baimena daukan ala ez, ez dadin gertatu lehen gertatu zena. Majo pagatu behar Markesari, eta baimenik gabe zeukan. Nagusi berarena zen. Begiratu zen eta ez zen ezer eman beharrik izan”.

Igartza eta Laskaibar auzokoak ur eske

Udalak, geltokiraino bakarrik jarri zuen ura, geltokitik gora etxerik ez baitzegoen



Erromeria

“Sagastigutiko depositua inauguratu zenean, erromeria egin zen eta urtero-urtero, erromeria egitean zen.



eginda oraindik. “Igartzako auzokoei, eskatu egin zuten. Auzolanean, zangea eta tuboa jarriko zituztela eta ea urik emango zien eskatu zuten. Ura eman zien. Guk ere ezagutu dugu, Igartzako Zubiaren sarreran iturria. Laskaibar auzoak ere eskatu zuten ura eta Igartzakoei bezalaxe erantzun zitzaion”.

Beti ur eskasia

“Beti ur eskasia izan da, beti herria hazten joan baita, eta beti ura bilatzen aritzen ziren. Gero, Ormaiztegiako Telleriari, elektrizitatea egiteko zegoen Makinetxea erosi zion. Ur-bilatzaile bat ekarri zen. Arrasatekoa zela

uste dut. Ura bilatu zuen, 150 metrora. Berehaldiko poltsa zegoela. Gizona portatu egin zen, dokumentuetan agertzen da. Ea zenbat behar zuen. Udaletxeak nahi zuena eta nahi zuen bezala pagatzeko erantzun zuen. Mune baserriaren ondoan bilatu zuen ura. Hasi ziren ura ateratzeko behar ziren obrak egiten. Baina ez zuen nahikoa ematen eta utzi egin zuen udalak eta handik ez zen urik ekarri. 150 metrora bomba sartuta dago. Arriarangoa egin zenetik, denak sobran daude”.

Ur mozketak asko izaten zen garai batean. “Aurrena gauez bakarrik izaten ziren,

gaueko 10etatik goizeko 6etara. Baina gero egunez ere bai. Urte batzuk txarrak izan ziren”, zehaztu du Zufiurrek.

4 litrotik 10 litrora

Beasaingo Udaletxean, uraren kontura izan zen borroka edo eztabaida baten berri eman digu Josetxo Zufiurrek. “Orduan ere borroka izan zen. Udaletxean, liberalek agintzen zuten. Bost zinegotzi zeuzkaten. Karlis-tek, lau. Beasaingo Udalar- lehendabiziko baimena eman zitzaion, Zazpiturrietatik, segunduko 4 litro hartuko. Ur gehiago zegoen eta herrian agintzen zute-

nek pentsatzen zuten, denbora asko baino lehenago lortuko zutela ur gehiago ekarri ahal izatea. 10 litro jotzen zuten beraiek ondo bezala. Udaletxean bilera batean proposatu zen, 10 litro ekartzeko adinako tuboa jartzea. Karlis-tek ezetz. Lau litroko baimena zegoela eta 4 litroko tubo jarri behar zela. Iturriotzek esaten zuen, bi edo lau urtera 10 litro ekartzea lortzen baldin bazen, tubo berria jarri behar al zuten 8 kilometroan. Botazioan irabazi egin zuten liberalek, zinegotzi bat gehiago baitzeukaten. Eta eskerrak, bi urte baino lehen 10 litro baizetozen”.



zuhazki
S.A.
Zurgindegia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04



Goierri Kolore, kulturen arteko III. topaketa

Goierri, gero eta koloretsuagoa da. Arraza, kultura, hizkuntza aniztasuna gero eta handiagoa da. Bertakoon eta kanpotik etorri diren arteko harremana sortu, bultzatu eta erraztu nahian, bertakoak eta kanpokoak elkartzeko guneak bilatzen lagundu nahi du Goierri Kolore ekimenak. Aurten hirugarren edizioa izango du Goierri Kolorek, eta urriaren 28tik azaroaren 8ra bitartean, ekintza ezberdinak antolatu ditu Goiekik Goierriko hainbat erakunde eta elkarte ezberdinekin elkarlanean.

Berrikuntzez beteta dator III. Goierri Kolore ekimena. Goieiko Immigrazio Teknikaria den Ainara Ormaetxeak eta Bat-Egite

Goierri, Etorकिन Elkarteko Geovanny Molina ekuatoriarak eman digute ekimen honen berri.

Goiekik ez ezik, Bat-egite, Sustraiez Blai, Gueske, Goyeneche Fundazioa, gazte eragileak, etorkinak, emakume taldeak, 'Masaje Emocional' aholkularia, eta

abarrek bultzatudute Goierri Kolore. Aurten ere, tarte berezia eskaini zaie goierritar berriei, protagonismoa beraiei emanaz. Esate baterako, hainbat ulerritan, bertara etorritako herritarrekin solasaldiak antolatu dira beren bizi istorien kontaketen bitartez jatorrizko kultura

eta pertsonak ezagutu eta migrazioen fenomenoak hobeto ulertzeko.

Aurtengo berrikuntzeta-raiko bat, Nazio Arteko Futbol Mundialitoa da aurtengo berrikuntzetariko bat. Peru, Bolivia, Latinoamerika, Magreb, Errumania, Euskal Herria eta Portugal arituko dira lehian, Ordizian. Aurrera begira, egun bakar bateko ekintza izan beharrean, luzatzeko asmoa ere badute. Beste berrikuntza bat, 12-16 urte bitarteko gazteengana hurbiltzea izan da. Mundialitoaz gain, hitzaldiak, migrazio esperientzien bizi istorien kontaketak, haima erraldoia, Gaztelekun joko dinamikoak, kontzertuak... ekintza ugari izango da. Hurrengo orrian

% 8,89

2009ko urtarrilaren 1eko erroldan, 42.789 goierritar ginen. Atzeritarrak, %8,89 ziren.

- ✓ Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikokoak diren biztanleak: 2.296 (% 5,37). Ugariak, errumaniarrak dira, 1.672.
- ✓ Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikokoak ez diren biztanleak: 1.506 (%3,52). Ugariak, marokarrak dira, 375.

dituzue ekintzen argitasunak.

Kaixo lagun!

Azaroak 8 egun berezia izango da, ekintza berezia prestatu baitu Goierri Kolorrek. Beti Alai pilotalekuan, kafearen bueltan, bertakotak eta Goierriara etorri berriak elkartzeko aukera izango da. Elkar ezagutzeko aukera izango dute, gertuko harreman berri eta goxoak izatearekin batera. “Kaixo lagun! zure izena? seme-alabarik? eskualdea ezagutzen? munduan zehar bidaiarik bai? Goierriko gauzarik kuttunena? gomendioen bat?... Barrerak hausteko balioko du. Bitartean, Klownak egongo dira eta mahaiez mahai giroa bultzatzen eta klowklusioak egingo dituzte, umore moduan. Musika ere egongo da. Ekintza hau irekia izango da nahi duenarentzat baina jende kopuru bat ziurtatuta edukitzearren, eskualdeko elkarte ezberdinetarako gonbidapena luzatzen ari dira Goierri Kolorrekoak. Haurrentzako txokoa ere egongo da”, argitu digu Ainara Ormaetxeak. Harremanetarako, 943885745 telefonoa eta ainara.goieki@goierri.org posta elektronikoa daude.

Sustraiez Blai

Sustraiez Blai elkarteak Goierri Kolorerekin bat egiten du eta munduko musiken topagunea izaten den Sustraiez Blai jaialdia, azaroaren 7an izango da Zaldibian. Hiru talde izango dira: Tomasito, Color Humano eta Bizardunak. Sarrera: 15 euro. Autobus bereziak izango dira.



Bat-Egite taldeko hainbat kide.

Bat-Egite Goierri Elkarte

Goiekiren Elkarbizitza Planetik eta Goierri Koloretik, Goierriko hainbat etorkin elkarte egin dira eta Bat-Egite Goierri Elkarte sortu dute. Geovany Molina da taldekideetarikoa bat. “Elkarbizitza Planeko bileretan parte hartzen nuenean, ikusi nuen, guretzat, etorkinetaz hitz egiten zela, eta gu ere bertan presente egon behar genuela gure errealitatea eta beharrak udalerrietako eragile ezberdinei transmititzeko. Bileretan, beste neska batekin topo egin nuen eta elkarte sortzea erabaki genuen. Hasieran, arrakasta gehiago izango zuela pentsatu genuen, baina ikusi genuen kosta egiten dela. Jendeari kosta egiten zaio bileretara joatea. Tarteak bilatzen ari gara, gauzak antolatzeko. Beasaingo Udazken Kulturalean ere ekitaldi bat antolatu dugu, futbol txapelketarako jendeak deitu egiten dit... ekintza ludikoetan parte hartzen du. Ekintza horiek integrazioarako balioko digute. Beldurra dago, guk zuen beldurra daukagu eta zuek gure beldurra daukazue. Inmigrazioa berria da hemen, ez dago sustraia. Elkarrekin kostatu egiten zaigu. Gure eskubideen alde borrokan egiteko elkarrekin kostatu egiten zaigu, inmigrazioa, heltze prozesuan dagoelako”, dio ekuatoriarrek.

Beasainen, Mugagabe festa

Goierriko gizartearen parte izan nahi dute etorkinek eta Goierriko bizimoduan parte hartu. Adibide bezala, Beasaingo Udazken Kulturalean, urriaren 17an, 16:00etatik 21:00etara, Mugagabe, Munduko Kulturaren Festa antolatu du Bat-Egite elkarteak. Mundualitoa, musika talde folklorikoak (Bolivia, Ecuador, Argentina eta Cubakoak), pintxoak, herri ezberdinetako ipuinak euskaraz... Gernika pasealekuko pilotalekuan izango da festa.

PSIKOLOGI KLINIKOA	
	Jose Ramon Pato Prieto Psikologian lizentziatua Elkartegikide zenbakia: E-2644 RPS: 420/01
AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041 JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN	

**Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak**

		kudeaketa fiskala kontablea merkatala laborala
zerbitzuak		
Tel 943 88 44 00 Faxe 943 80 51 27 www.biokzerbitzuak.com Ordizia Urdaneta, 7		

Goierri Kolore, egunez egun

Urriak 28, asteazkena:

18:30etan: Beasaingo Udaletxeko Batzar Aretoa, hitzaldia: 'Euskal kulturaren erronka eta aukerak XXI. mendean'. Egungo euskal gizartean, besteak beste modernoa, teknologikoa, kulturantza: nola garatzen da euskara eta euskal mundua? Zein erronka ditugu, nola kokatu eta zein tresna garatu, zein modu, nola aberastu beste kulturekin, nola eskaini euskal mundua? Hitzlaria: Patxi Juaristi. Soziologoa. EHuko Irakaslea eta Euskaltzaindiako Sustapen Batzordeko kidea. Hitzaldia euskaraz izango da.

Urriak 29, osteguna:

18:30etan: Olaberriko Multimedia gelan, Bizi istorioen kontaktak. Migrazio esperientzia bizi duten herriko biztanleen istorioak dira: jatorrizko lurraldearen testuinguru sozial eta pertsonala, lurraldea uztearen zergatia, lurralde berrian aurkitutako zailtasunak, aberastasunak, eta abar.

21:00etan: Beasaingo Usurbe Antzokian, film emanaldia: 'Checkpoint rock. Canciones desde Palestina', Fermin Muguruzak zuzendua. 'Canciones desde Palestina' oso musikari ezberdinetara gerturatuko da herriz herri eta checkpointez checkpointera. Bidai honek herri honen gatazkari buruz dagoen iritzia aldatuko du. Sarrera: 3,5 euro.

Urriak 30, ostirala:

18:30etan: Itsasondoko Gaztelekuan, Euskaraz ikasitako etorkinen istorioak. Euskararen Astearen barruan, euskarak udalerrian izan duen garapena kontatzeaz gain, Euskal Herri kanpotik gurera etorritako hainbat herritarrek, beraien bizipenak kontatuko dizkigute, gure herrira etorrera nolakoa izan zen eta euskararekiko beraien harremana kontatuz.

Urriak 31, larunbata:

10:30etik 14:00etara eta 17:30etik 20:00etara: Ordizian, Mundialitoa. Nazio arteko futbol txapelketa. Zortzi talde egongo dira. Goizean kanporaketak egingo dira eta arratsaldean finalaurrekoak eta finala. Taldeak: Ekuador, Bolivia, Errumania, Latin Brothers, Maroko, Peru, Euskal Herria, Portugal.

16:30etan: Beasaingo eta Ordiziako Gaztelekuetan, Gaztelekuak aniztasunean hezten, 12-16 urte bitarteko gazteek kultur aniztasunaren inguruan sentsibilizazio joko dinamikoak egingo dituzte.

Azaroak 3, astearte:

19:00etan: Ataungo Udaletxeko Batzar Aretoan, Bizi istorioen kontaktak, migrazio esperientzia bizi duten herriko biztanleen istorioak.

22:00etan: Goierri Telebistan, Sakonduz saioan, Ainhoa Ibañezek gidatuta, XXI. mendeko euskara eta euskal munduaren erronkei buruz mintzatuko da Patxi Juaristi, soziologoa. EHuko irakaslea eta Euskaltzaindiako Sustapen Batzordeko kidea.



Azaroak 5, asteazkena:

18:00etan: Zaldibiako Karreana Kultur Etxean, Bizi istorioen kontaktak.

Azaroak 6, ostirala:

19:00etan: Zegamako Udaletxeko Batzar aretoan, Bizi istorioen kontaktak.

17:00etan: Itsasondoko Gaztelekuan, Gaztelekuak aniztasunean hezitzen.

Azaroak 7, larunbata:

17:00etatik 19:00etara, Lazkakoko plazako pilotalekuan, 'Ezberdintasunak hurbilduz: arabiar kultura ezagutzeko tailerrak'. Emakume arabiarren bitartez, haima erraldoi batean girotuta arabiar kultura eta tradizioen erakusketa eta tailerrak egongo dira. Ekintzak: dantza tradizionalak, hennaren erabilera, te eta gozoen dastaketa, kontaktak, integrazioaren inguruko hausnarketa eta eztabaiak,... Partaideak: Nazioarteko Elkartasuna.

16:00etan: Lazkaoko Gaztelekuan, Gaztelekuak aniztasunean hezten.

21:00etan: Zaldibiako antzokian, Munduko musiken jaialdia. Sustraiez Blai Elkarateak antolatutako musika jaialdi nagusia izango da. Taldeak: Tomasito, Color Humano eta Bizardunak. Sarrera: 15 euro (aurrez salgai: Ordiziako Goierriko Baratzan eta Beasaingo Irizar Jatetxean).

Azaroak 8, igandea:

17:00etan: Ordiziako pilotalekuan, Kaixo Lagun! Kafetxo eta gozagarri batzuk hartuz, goierritar zahar eta berriak zuzenean elkar ezagutzeko aukera izango dugu mahai inguru batean. Bitartean, klown bat egongo da elkarriketak jasotzen eta bukaeran, umore moduan, klownklusioak egingo ditu. Partaideak: goierritar zahar eta berri guztiak. Haur txokoa egongo da.

Beasain

Udazken kulturala

Urriak 16, ostirala:

18:30etan: Erraldoi eta kilikien irteera txistulariek lagunduta.

22:30etan: Antzerki amateur: Orratz! Antzerki Taldearen, 'Zuhaitzak zutik hiltzen dira', Kutxa fundazioak babestuta. Usurbe antzokian.

Urriak 17, larunbata:

16:00etatik 21:00etara: Mugagabe Munduko Kulturaren Festa: Ipuin kontaketak, tailerrak, musika, dantza... Antolatzailea: Bategite etorkinen elkarte. Gernika pasealekuko frontoian.

Urriak 18, igandea:

09:00etan: XVIII. Aire zabaleko Pintura-lehiaketa. Mihi-seak zigilatzeke epea irekiko da. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan. Antolatzailea: Arrano Kultur Elkartea.

10:00etan: Extremadurako azoka, Gernika pasealekuko frontoian. Antolatzailea: La Bellota taldea.

13:00etan: Donostiako 'Virgen de Guadalupe' taldearen dantza emanaldia, Gernika pasealekuko frontoian. Antolatzailea: La Bellota taldea.

13:30etan: XVIII. Aire zabaleko Pintura-lehiaketako lanen aurkezpena, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

16:30etan: Haurrentzako tailerra: 'Sukaldaritza sortzailea', Gernika pasealekuko frontoian.

18:30etan: XVIII. Aire zabaleko Pintura-lehiaketaren sari-banaketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

19:00etan: XVIII. Aire zabaleko Pintura-lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketaren inaugurazioa, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Urriak 22, osteguna:

17:30etan: Haur antzerkia: Tony la Sal taldearen 'Birusak erasoan', Batzar Aretoan. Antolatzailea: Udal Biblioteka, Kutxa fundazioak babestua.

21:00etan: Zine-kluba, Usurbe Antzokian: 'Estomago' filmaren proiektzioa. Antolatzailea: Goieniz Zine-kluba.

Urriak 23, ostirala:

18:30etan: Erraldoi eta kilikien irteera txistulariek lagunduta.

19:00etan: Asmube abesbatzaren emanaldia, Goikoe-txea anaiek lagunduta, Batzar Aretoan. Antolatzailea: Asmube.

22:30etan: Bertso saioa, Usurbe antzokian: Ekaitz Goikoetxea, Iñaki Apalategi, Sustrai Colina, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Jon Maia. Antolatzailea: Arrano kultur elkarte.

Urriak 24, larunbata:

11:00etan: Herri Soinu Tresnen erakustaldia, Gernika pasealekuko frontoian. Antolatzailea: Ostadar dantza taldea.

17:00etan: Gipuzkoako XIII. Euskal Kantu Txapelketa-

ren kanporaketa, Usurbe antzokian. Antolatzailea: Euskal Kantuzaleen elkarte.

19:00etan: Dantza-jaialdia Aurtzaka dantza-taldearekin, Gernika pasealekuko frontoian. Antolatzailea: Aurtzaka dantza taldea.

Urriak 25, igandea:

12:00etan: Haurrentzako pintura-tailerra, Joan Iturralde plazan. Antolatzailea: Txilibutxof.

13:00etan: Kontzertua: Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestra, Gernika pasealekuko frontoian.

18:30etan: Dantzaki dantza-eskolako eta Gala Ballet eskola irakasleen eta ikasleen dantza erakustaldia, Gernika pasealekuko frontoian. Antolatzailea: Dantzaki eta Gala Ballet eskola.

Urriak 28, asteazkena:

19:00etan: 'Euskal kulturaren erronka eta aukerak XXI. mendean', hitzaldia, Patxi Juaristi. Soziologoa. EHUKo Irakaslea eta Euskaltzaindiako Sustapen Batzordeko ki-dearen eskuti. Batzar Aretoan.

Urriak 29, osteguna:

20:00etan: 'Yuuka' abesbatzaren kontzertua, Andre Mari Zeruratuaren Parrokian. Antolatzailea: Loinatz abesbatza.

21:00etan: Fermin Muguruzan 'Checkpoint Rock (canciones desde Palestina)' filmaren proiektzioa, Usurbe antzokian. Antolatzailea: Sustraiez blai.

Urriak 30, ostirala:

18:30etan: Erraldoi eta kilikien irteera txistulariekin.

22:30etan: Antzerkia, Usurbe antzokian: Vaiven taldearen 'El club de las mujeres invisibles'.

Urriak 31, larunbata:

9:00etan: Txangoa: 'Ura Beasainen' Josetxo Zufiaurrekin. Antolatzailea: Udal Euskaltegia.

17:00etan: Haurrentzako tailerra: 'Giltzatakoak', Joan Iturralde plazan. Antolatzailea: Txilibutxof.

19:00etan: Goierriko Txistularien kalejira.

19:30etan: Txistu kontzertua Goierriko Txistulariekin, Gernika pasealekuko frontoian.

Azaroak 1, igandea:

10:00etan: I. Motorren ibilaldi neurtua, Gernika pasealekuan. Antolatzailea: Sugoi taldea.

19:00etan: Easo Kapera Gregorianistaren emanaldia, Andre Mari Zeruratuaren Parrokian.

Azaroak 3, asteartea:

19:00etan: Beasaingo Paperak bildumaren 17. zenbakia aurkezpena, Usurbe Antzokian. Izenburua: 'Beasaingo urak'. Josetxo Zufiaurreri omenaldia egingo zaio.

Azaroak 5, osteguna:

21:00etan: Zine-kluba: 'El violin' filmaren proiektzioa, Usurbe Antzokian.

Goierriko bizitza eta nekazaritza ekologikoaren II. Hamabostaldia

Urriak 17, larunbata:

12:00etan: Segurako Kultur Etxea 'Bizitza ekologikoa gure eskura' erakusketaren inaugurazioa. Urriaren 17tik 31ra bitartean, Segurako kultur etxean. Jardunaldiaren aurkezpena eta produktu ekologikoekin landutako pin-txoak dastatzea.

Urriak 20, asteartea:

19:30ean: Segurako Kultur Etxea. 'Euskal Herriko sendabelarrak'. Hitzaldia Ainhoa Carcia Sesmak emana (herbologian, herbodietetikan eta estetika naturalean aditua).

Urriak 21, asteazkena:

19:00etan: Beasaingo Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan. Hitzaldia: 'Elikadura naturala eta kirol jarduera', Igor Gutierrez Maortuak emana (gorputz-hezkuntzan lizentziaduna, kirol-errendimendu handiko masterra, kirol-pilateseko irakaslea, eta fisiokulturismoko eta muskulazioaren entrenatzaile nazionala). Elikadurak kirolean duen garrantzia hitz egingo du. Kirolariaren nutrizio-eta energia-premiak, eta osagarrien premia aztertuko dira, eta elikadura-ereduak proposatuko dira.

Urriak 22, osteguna:

19:30ean: Zaldibiako Kultur Etxean, hitzaldia: 'Abeltzaintza ekologikoaren hastapenak eta oinarriak'. Sara Lorda. Albaitaritzan lizentziaduna, albaitaritza homeopatikoan graduatu-ondokoa, homeopatian masterduna, homeopatian graduatu-ondokoa.

Urriak 24, larunbata:

10:00etan: Sukaldaritza naturalari buruzko ikastaroa Ordiziako Aldapa elkartearen, Sabrina Patok emana (su-

kaldari profesionala eta nutrizioan aditua). Helduentzat nahiz haurrentzat askari osasuntsua prestatzeko klase praktikoa: azenario-patea intxaurrekin, txanpinoi-patea, txokolate-krema ("nocilla") osasuntsua...

Urriak 27, asteartea:

19:00etan: Hitzaldia Zaldibiako kultur etxean: 'janaria, euria, baratza eta sosak', Jesus Calvillok emana (biologoa, nekazaritza ekologikoan aditua, eta Itsasmendikoi-Fraisoroko irakaslea). Hitzaldian baratze ekologikoa, elikagai osasuntsuak (euri fina eta ongizatea ekarriko dituztenak, eta krisia gainditzeko lagunduko digutenak) nola ekoiztu izango dira hizpide.

Urriak 28, asteazkena:

19:30ean: Segurako kultur etxean. Hitzaldia: 'Bertako ohiko barietateak berreskuratzea', Marcelino Santiagok emana (nekazaritzako peritua, tarteren bat duenean nekazaria, Euskadiko hazien sareko kidea, Ekonekazaritzako laguntzailea). Hitzaldiak nekazaritza-dibertsitatea eta ohiko barietateak berreskuratzeak eta horiei eustekak duen garrantzia izango du hizpide. Hitzaldiarekin batera, haziak lortzen erakutsiko digu.

Urriak 29, osteguna:

19:30ean: Ordiziako kultur etxean. 'Utopia' filma. Nahitaezko dokumental hau gaur egun dugun bizimoduari eman beharreko begiratu da, gure ingurunea nola hondatzen ari garen, eta gure jardunaz nola babes dezakegun erakusten diguna.

Urriak 31, larunbata:

10:00etatik 16:00etara: 'Ogi ekologikoa egiteko tailerra' Haristizabal baserrian (Eztkio), Xabi Akizuk emana. Ogi biologikoa ona egiteko beharrezkoa den guztia ikasiko dugu, eta, astirik izanez gero, gaileta ezin goxoa goak ere egingo dituzte.

Sukaldaritza eta ogia egiteko ikastaroetan gehien ere 15 lagunek har dezakete parte, eta 10 euro ordaindu behar da pertsonako (haurrek dohainik). Goierriko Baratzan eman behar da izena, edo 943 08 74 98 telefono-zenbakira deituta. Sukaldaritza-ikastarora 6 tuperwar eta irabiagailua eraman behar dira.



GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

ZAHARRA • BERRI

IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
943 180 372
651 700 439
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak

Ordizia

XII. Artisaualdia urriaren 9tik 12ra

Gipuzkoako Artisauen XII. jardunaldia antolatu du, Gabilza, Gipuzkoako Artisauen elkarteak. Ordizian izango da, urriaren 9tik 12ra. Gaur egun egiten diren artelanen ahalik eta mostrarik zabalena aurkeztu nahi dute Ordizian. Horrekin batera, bi helburu ditu Artisaualdia: Gipuzkoako artisautzari bultzada ematea eta artisau foro bat eskaintzea, analisiak egin ahal izateko eta amankomunean dituzten arazoei irtenbidea bilatzen saiatu eta aurkitu ditzaten.

Urriaren 9tik 12ra

Iaz Artisaualdia abenduan egin bazuten ere, aurten, berriz ere ohiko data itzuli da, urriaren 9tik 12ra izango baita. Beti Alai pilotalekuan izango da. Azoka, urriaren 9an, arratsaldeko 5etan inauguratuko da. Gainerako egunetako ordutegia hauxe izango da: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:30era. Sarrera, doan izango da aurten.

31 artisauak hartuko dute parte. Kolorez beteriko beira postuak, bitxi berritzaile eta betikoak, larruz egingako lanak, keramika, papera eta abar ikusi eta erosi ahal izango da. Artisauen eguneroko lanbidea nolakoa den ikusteko aukera izango dute (larrua, keramika, lore lehorrak, kaligrafia) hitzalditxo bidez azalpena jarraitzeko aukera izango dute 15 minutuko iraupena izango dutelarik, era labur eta ikusgarri baten bidez. Megafonia bidez abisatuko da parte hartu ahal izateko.

Birziklapenak eta artisautzak leku berezia izango du aurtengo Artisaualdian. Jardunaldi Teknikoak egingo dira: hitzaldiak, tailer didaktikoak, erakusketak, eta abar...). "Duela bost urte martxan jarri genuen ideiarekin jarraituz, artisautzak sektore ezberdinekin daukan erlazioa ikusten dugu eta egingo ditugun ekintza guztiak aurtengo edizioan birziklapenari lotuak egongo dira: artisauak objektuak egiteko garaian erabili dezakeela kontutan hartuta edo botako diren materialen birerabilera.




Tailerrak eta erakusketak

Birziklapenarekin lotuta, hiru tailer didaktiko antolatu dira. Lehenengoa, 'Kolorezko mundua', artisauak emandako material hondakinekin munduko mapa osatuko da. Bigarrena, 'Soinua denean dago', Marcello Liberato doinuaren artista italiarraren eskutik musika instrumentu birziklatuak egingo dituzte. Eta hirugarrena, 'Artisau paper sorkuntza', Felix Aranbururen eskutik papera nola egiten den erakutsiko da.

Beste hiru erakusketa ere izango dira. Batetik, 'Pieza bakarreko erakusketa'. Karpan, azokan parte hartzen duten artisauak egindako erakusketa egongo da. Aurtengo gaia erabiliz 'Biziklapena eta artisautza' artisau bakoitzak pieza bat osatu du eta bertara joango den jendeak pieza hoberena hautatu ahal izango du eta Delikatuz-eko produktu sorta baten zozketan sartuko da. Bestetik irabazleak 200 euroko saria jasoko du.

'Jantziak ez janzteko', Tytti Thusberg Finlandiar diseinatzailearen jantzi birziklatuak ere ikusiko dira. Jogurth tapekin eginiko soinekoa, te boltsekin egindakoak...

Azkenik, 'Naturgaiak', Pedro Casteloren burdin eta egurrezko lanpara birziklatuak.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

Ikaskide-urrats
akademia

Joan Iturralde, 5 - 943 160 120 eta Urbalde plaza 7- 943 027 792
685 722 403 - 675 006 462
www.ikaskide.net

2009-2010 ikasturtea

ESKOLA LAGUNTZA: Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Moduluak.
HIZKUNTZA ESKOLA: Ingelera eta Frantsesa. 6 urtetik aurrera.
UNIBERTSITATE MAILA: Mondragon Unibertsitatea (Goierrri).
MEKANOGRAFIA eta INFORMATIKA: Bakarka edota tutoritzapean.
LAGUNTZA PEDAGOGIKOA: Arreta gabezia, irakurmena, kalkuloa...
IKASKETA TEKNIKAK TAILERRA: Ikasten ikasteko.

Legorreta

Kultur astea

Urriak 21, asteazkena:

17:00etan: Maite Franko ipuin kontalariak 'Lurraren negarrak itsasoa sortu zueneko ipuinak' emanaldia Liburutegian 6 urtetik aurrerako gazteentzat.

18:30etan: Buruhandiak.

19:00etan: Hitzaldia: 'Zaintzailearen zainketa' Herri Zinemak. Babeslea: Kutxa.

Urriak 22, osteguna:

9:00etan: Fernando Oliveiraren Pintura Erakusketa Aldaieta Jubilatuta Tabernan.

19:00etan: Buruhandiak.

19:00etan: Hitzaldia: 'Nola bizi parkinsonarekin' Herri Zinemak. Babeslea: Kutxa.

20:30etan: II. Laburmetrai Lehiaketara aurkeztutako lanen emanaldia, ondoren 'Tierra' dokumentalaren emanaldia Herri Zinemak.

Urriak 23, ostirala:

15:00etan: Haur hezkuntzako ikasleen triziklo, moto edo patinetek irteera eskolatik plazara. Pilotalekuan ingurumenari buruzko murala margotuko dute.

15:00etan: Mugikortasuna eta nazioarteko autorik gabeko egunaren inguruko marrazki erakusketa plazan lehen hezkuntzako ikasleen eskutik.

16:30etan: Pote, Igel eta Toka Txapelketa Jubilatuentzat.

19:00-20:00etan: Bidezko Merkataritza apaiz etxean.

19:00etan: Buruhandiak.

19:00etan: 'Legorparty 2009' Ordenagailu Topaketaren hasiera Patxi Ezkiaga Kultur Etxean.

23:00etan: Legorretako XV. Mus Txapelketa Bilkoin Elkartearen.

Urriak 24, larunbata:

9:00etan: Mendi Irteera inguruko mendietan barrena.

17:00etan: Haur Jolasak Udal Pilotalekuan.

19:00-20:00etan: Bidezko Merkataritza apaiz etxean.

22:30etan: Txalo Taldeak 'Ate-Joka' emanaldia eskainiko du Herri Zinemak.

Urriak 25, igandea:

11:30-14:00etan: Bidezko Merkataritza apaiz etxean.

12:00etan: Herri Kirol Desafioa Gazte Piku eta Gain Eder Harrera Etxeko gazteen artean.

13:00etan: I. Patata Tortila Lehiaketa.

20:00etan: 'Legorparty 2009' Ordenagailu Topaketaren amaiera Patxi Ezkiaga Kultur Etxean.

Legorreta

II. Laburmetraia lehiaketa

Aurtengo kultur astea Ingurugiroa ingurukoa izango da, bertan gauzatuko diren zenbait ekintzen artean II. film laburren lehiaketa burutuko da. Telefono mugikorrak, argazki makinak edo bideoz filmatutako pelikulak izango dira. Partaidetza eta sormena bultzatu nahi dira. Edo-nork har dezake parte lehiaketan. Maila bakar bat egongo da.

Gaia: ingurugiroa (garrantzia kudeaketa, erasoak ...). Film laburrak ezingo du 5 minutu baino gehiago iraun. Lanak originalak izan behar dira, argitaratu gabekak eta ezin dira lehenagotik sarituak izandako bideoak aurkeztu, ez eta beste lehiaketa baten erantzunaren zain dagoen filmik izan.

Laburmetraia aurkezteko epea urriaren 16an amaituko da eta egorretako Patxi Ezkiaga kultur etxean egingo da. Sari banaketa urriaren 22an egingo da Legorretako herri zinemak aurkeztu diren lanak ikusi ondoren.

Idiazabal

'Herriak uztartze bidean, Catalunyatik Izala'

Hartu Hitza Kultur Elkartek, 'Herriak uztartze bidean, Catalunyatik Izala' festa antolatu du. Urriaren 17an izango da. Arratsaldeko 6etan, kalejira eta Castellarsen ekitaldia izango da. 20:00etan, bideo emanaldia izango da pilotalekuan. 21:00etan, herri afaria eta ondoren, dantzaldia.



Iñauti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zoki, KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



GERTU Creativity and Innovation
European Year 2009
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN T: 943 16 21 92 F: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Beasain

Jazpana! Fest

Jazpana! Fest Rural Postmodern Festival in Beasain izango da urriaren 23an eta 24an, Beasainen. Argazki Rallya, 3x3 Saskibaloia txapelketa (neskak eta mutilak), bideo emanaldia, graffittia, Skate txapelketa (A.S.T.O.A. eta King of The Lines), eta kontzertuak izango dira.

Urriak 23, ostirala:

17:00etan: 3x3 Saskibaloia txapelketa eta Argazki Rallyaren hasiera.

22:00etan: Bideo emanaldia: Joe Strummer: 'Vida y Muerte de un Cantante (Julien Temple)'.

23:00etan: Kontzertu akustikoa: Moby Dick.

Urriak 24, larunbata:

16:00etan: Skate Txapelketa: A.S.T.O.A. eta King of The Lines.

16:00etan: Graffiti erakustaldia Bernedoneko zubian.

18:00etan: Herriko taldeen kontzertuak: Arkasha, Punk Bacharach, Surfing Secretas, Fitter Happier, Lopeznio y Los Antilopez.

23:00etan: Kontzertuak: Cordura, The Dirty Pink Ladies, Capsula, We Are Standard.

Zaldibia

Santa Fe jaiak

Urriak 9, ostirala: Mozorro gaua:

16:30ean: Haurrentzako txokolate-jana, eta ondoren, jolasak, Guraso Batzordeak antolatutak.

18:30ean: Zaldibiako Pilota eskolako esku-pilotako partidak.

22:30ean: Pilotari profesionalen arteko pilota partidak. Lehenengo partida: lau t'erdia barruan Bigarren mailako txapelketa. Bigarren partida:

Mendizabal – Peñagarikano / BengoetxeaVI – Ibai Zabala.

23:30ean: Dantzaldia 'Tximeleta' musika-taldearekin.

01:30a aldera: Herriarren Play back saioa.

Urriak 10, larunbata:

12:00etan: Atletismo probak. Herriko haurren lasterketa. Erreleboak (4 x 400). Udalak antolatutak.

Ondoren: Gipuzkoako (4x100) errelebo proban, 46,25eko kronoarekin, errekorra lortu duten atletei sari berezia emango zaie.

16:30ean: Mozorro festa eta haurren jaialdia.

18:30ean: Euskal Herriko eta Alemaniako Segalarien arteko lehia.

19:15ean: Arrese tabernatik hasita, Ordiziako Laguntasuna Errondailaren saioa.

23:30ean: Dantzaldia 'Garraxi' musika-taldearekin.

20:00etan: Manifestazioa eta ekitaldia, Txosna Batzordeak antolatutak.

Urriak 11, igandea: Koadrila eguna:

12:00etan: Iztueta dantza-taldearen saioa plazan.

13:30ean: Koadrilen irteera plazatik, 'Jun da jo' txarangarekin.

14:30ean: Bazkaria herriko plazan.

Ondoren: 'Jun da jo' txarangak giro-tuta, koadrilen arteko jokoak.

23:30ean: dantzaldia 'Trikizio' musika-taldearekin.



Zientziaren aurpegi alaiaren bila!

gizarte ekintza

hezkuntza

www.miramon.org

943 01 24 78

DONOSTIA

zer nahi duzu bihar?

kutxa



MENDIZABAL
abeltzaintza

Bertako haragia baserritik zuzenean

686 325 511- Juan Antonio
686 301 313- Maria Luisa
galamendi@terra.es

Mendizabal Baserria
20.248-Arama (Gipuzkoa)



**1930. urtean jaiotako
Gabiriako kintoak,
1955. urte inguruan**

**Goiko ilaran ezkerretik es-
kuinera:** Juanito Apaolaza
(Olalkiaga), Joxe Mari Goia
(Gaztelu), Pakito Oñatibia
(Aranetxiki) eta Paulo Murua
(Izar Haundi).

Erdiko ilaran: Ezezaguna,
soinujolea eta Basilio Oñatibia
(Etxeberribizkai).

Beheko ilaran: Bittor Oria
(Gabirizartxiki) eta Joxe Migel
Legorburu (Azkartza).

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lurrin

Lurrindegia eta opari gaiak

SSANGYONG

LADA

**ARANDIA
GARAJEA**

Autoen konponketa

N-1, z/q Iurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 88 09 47

over Urraki

Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

AMEB

Sagardotegia

**Erretegi bezala
zabalik**

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO



BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

Goierritarra + GOIERRIKO **hitza** info

Abantailaz betetako elkarlana

Harpidedunen abantailak:

Egunero Hitza eta hamabostero Goierritarra etxean jasoko dituzu.

Zorion-agurretan deskontuak.

Zozketetan parte hartzeko aukera.

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

☐ **Goierri** 27 euro ☒ **Egin bat aukeratutako kaxan** ☐ **GOIERRIKO hitza** 67 euro

☐ **Goierri** + **GOIERRIKO hitza** 72 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Telefono zenbakiak:.....

NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartel hau helbide honetara:
Goierritarra, Urbialde plaza 7 behea, Beasain

Harpidedunen arreta zenbakia: **902 82 02 01**

SANTOS

ARAKAMA

sukalde gunea

Hiribarren, 24 Lazkao
Laister Beasainen, Nafarroa etorbidea, 32

